

## **SARE GERNIKA-LUMOKO PLANGINTZA: 2023KO IRAILETIK 2024KO URTARRILA BITARTEAN**

### **0.-TESTUINGURUA:**

- Dispersio politika amaitu bada ere, gainerako salbuespen neurriek indarrean diraute.
- Etxeratze prozesua konponbide klabetan areagotu bada ere, oraindik orain gatazkaren ondorio batzuek (euskal preso, iheslari eta deportatuen existentzia, besteak beste) bere horretan diraute. Etxerat-en datuen arabera, gaur gaurkoz 150 preso, 17 iheslari eta 5 deportatu daude.
- SAREk etxeratzea helburu duen aktibazio soziala sustatzeko kanpaina berria abiatuko du, urtarrilaren 13an Bilboko kaleetan mobilizazio orokorrarekin isla izango duena.
- SARE Gernika-Lumok, aurten *etxeratzera* prozesu soziala abiatu du, eta orain lehen fasean gaude: sozializazio eta aktibazioan, hain zuzen ere.

### **2023ko irailetik 2024ko urtarrilera bitarteko plangintza:**

- Kontuan hartu behar dugu Espainiar gobernu osaketaren testuinguruan murgilduta gaudela, eta, afera honi zuzenki eragingo dionez haren norabideak, denbora tarte hau hautatu dugu gure plangintza marrazteko.
- Gainera, eta arestian aipatu bezala, SARE kanpaina berri bat prestatzen dago, eta haren nondik norakoak nolakoak izango diren aurki ezagutuko dugunez, bere inplementazioa eta egokitzapena Gernika-Lumon aztertu beharko dugu.



SARE  
GERNIKA-LUMO

## **PLANGINTZA:**

\* Hilabete hauetan guztietan eragile, elkarte, norbanako ezberdinekin harreman bira egingo dugu.

**a)** Irailaren 29an, azkeneko ostiralaren elkarretaratzearekin batzeko, aurkezpen ekitaldia egingo dugu.

**b)** Urriaren 21ean, SARE nazionalak bere kanpaina aurkezpena egiteko Gernika-Lumo hautatu du, eta ekitaldi baten bidez aurkeztuko du. Guri zuzenean eragiten digunez, erronkak eskatzen duen lana aintzat hartzen dugu.

**c)** Azaroaren 30ean greba orokor feminista deituta dago, eta emakumea eta kartzelaren inguruko errealitatea txertatzeko ekinbidea pentsatuko dugu.

**d)** Abenduaren 31an. Gabon-zaharretako mobilizazioa egingo dugu, eta arlo instituzionaleko lanketa ere egingo dugu garai honetan, urtero legez.

**e)** SARE On irratsaioaren 5.denboraldia abiatuko dugu, Biztu Irratian.

**f)** Partaideak garen eragileetako jarduna gurea egin: ASTRA, Gernika Memoriaren Lekuko.

# Hilabetero, azken ostiraleko elkarretaratzea indartuko dugu Etxerat elkartearekin.

# Plangintza hau aurrera ateratzeko auto-finantziazioan oinarritzen jarraituko dugu.

***Gernika-Lumon, 2023ko irailean.***